TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALEKO LAU ADMINISTRARI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA JARDUNBIDEA

HIRUGARREN PROBA: EUSKARA

Oinarri orokorren 9.2.3 puntuan adierazita, hirugarren proban, derrigorrezkoa eta kanporatzailea, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar da. Froga hau 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez duten hautagaiek egin beharko dute jarraian adierazitako egunean, orduan eta lekuan:

- Eguna: **2021eko urtarrilak 19**

- Ordua: **9:30**

- Lekua: **IVAP DONOSTIA**
  San Bartolome, 28
  20007 Donostia

* Oharra: honekin batera, IVAPek hautagaientzako helarazitako informazio orria argitaratzen da.

Tolosan, 2021eko urtarrilaren 13an

Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria

AMAIA ARSUAGA LANCETA - 72445400T

Firmado digitalmente por AMAIA ARSUAGA LANCETA - 72445400T
Fecha: 2021.01.13 10:44:47 +01'00'

TOLOSAKO UDALA

HAUTAGAIENTZAKO INFORMAZIO ORRIA

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz, IVAPek 2020ko martxoaren 13an bertan behera utzi zituen data horretatik aurrera abian edota aurreikusita zeuzkan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak.

Gaur egun, osasun-agintariek dekretatutako larrialdi-egoeratik aterata, IVAPek berriro ekingo dio deialdiak antolatzeari. Horretarako, indarrean dagoen araudiak ezartzen edo gomendatzen dituen segurtasun-neurriak kontuan hartuta, azterketen aplikazio eta zuzenketarako protokolo bat ezarri da, eta webgune honetan eskuragarri dago. Protokolo horretan zehazten da hautagaiek derrigorrez bete behar dituzten babes-neurriak:

- Norbera babesteko ekipamendua (NBE): Hautagaiek maskara eraman behar dute, azterketa-tokira sartzeko eta azterketa egiteko.
- Hautagaiek boligrafoa eraman behar dute.
- Gela guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da hautagaien eskura.
- Ahal dela, denbora osoan 2 metroko distantzia gordeko da, hautagaien artean zein hautagaien eta aztertzaileen artean.

Bestalde, azterketak ere osasun-egoera berrira egokituko dira. Entzumena mintzamen-saioarekin batera neurtuko da, berariazko entzumen probarik egin gabe. Eta idatzizko azterketaren egitura izango da taula honetan zehazten dena:

	IRAKURMEN PROBA		IDAZMEN PROBA		DENBORA GUZTIRA
	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	
1.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	30 minutu	1 h
2.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	40 minutu	1 h 10 m
3.HE	2 ariketa	35 minutu	Ariketa bakarra	50 minutu	1 h 25 m
4.HE	2 ariketa	40 minutu	Ariketa bakarra	60 minutu	1 h 40 m